# UDA zabal

## 2017

Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón

# Udazabal17

| Eguna | Mota | Ordua | Lekua | Ikuskizuna |
|---|---|---|---|---|
| 30 ekaina *junio* | Musika | 22:30 | Monterron parkean | **Arrasate Musikal Big Band** — Arrasate |
| 02 uztaila *julio* | ikuskizuna | 19:00 | Monterron parkean | **Tipi-tapa Korrika!** — Euskal Herria — ikuskizuna Pirritx eta Marimototserekin |
| 07 uztaila *julio* | Kontzertua | 20:00 | Jose Letona plazan | **Shalom Shalom!!** — Arrasate |
| 09 uztaila *julio* | kontzertua | 20:00 | Jose Letona plazan | **Zamarra eta Aterkia** — Euskal Herria |
| 14 uztaila *julio* | dantza | 20:00 | Zaldibar frontoian | **Topa** — Kukai + Brodas Bros — Euskal Herria · Katalunia |
| | dantza | 20:00 | Zaldibar frontoian | **Fade Away** — Cia de danza Ziomara Hormaetxe — Euskal Herria |
| 16 uztaila *julio* | antzerkia | 20:00 | Seber Altube plazan hasita | **Femmes Hortzmuga** — Euskal Herria |
| 21 uztaila *julio* | Dantza aereoa | 20:00 | Zaldibar frontoian | **Tximeleta** — Agurtzane Telleria — Arrasate |
| | dantza bertikala | 20:00 | Zaldibar frontoian | **Entre cuatro tiempo** — LaGlo Zirko-Dantza — Euskal Herria |
| 23 uztaila *julio* | dantza | 20:00 | Herriko plazan | **FreshCool** — Tio Teronen Semeak — Euskal Herria |
| 28 uztaila *julio* | folklore jaialdia | 22:30 | Monterron parkean | **Rangsagar Performing Arts** — India |

# Jaien egutegia

**02** uztaila *julio*
**Rocio eguna**
Arruena parkean

**08** uztaila *julio*
**Munduko arrozak**
Seber Altube plazan

**Mondrally 2017**

**15** uztaila *julio*
**Baserritarren azoka**

**19** uztaila *julio*
**Yoga Erakustaldia**
Monterronen 19:00etan

**22** uztaila *julio*
**Maala Arrabalako jaiak**

**26** uztaila *julio*
**Ferrerias kaleko jaiak**

**31** uztaila *julio*
**San Inazio eguneko erromeria Kanpazarren**

## Uztaila

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 | | | | | | |

ekaina
30
junio

# Arrasate Musikal Big Band

Arrasate

Musika | 22:30 | Monterron parkean



https://www.facebook.com/AMbigband

Talde hau 2000. urtean José Ramón Elkorok jarri zuen martxan, eta pare bat urte pasatu ondoren zuzendari dugu Zigor Martinez bergararra.

Partaide guztiak Arrasate Musikaleko ikasle eta irakasleak dira: Arrasate eta inguruko herrietako 23 musikariz osatua dago. Formazio honek lotzen ditu lau tronboi, lau tronpeta, bost saxo, pianoa, gitarra, bateria, perkusioa, baxua eta ahotsa. Errepertorioa oso zabala da, lantzen ditu blues, jazz, latin, bossa, funk, rock .... estiloak.

Taldeak hiru disko grabatu ditu, lehena Elgetako Espaloian 2005ean; bigarrena 2006ko azaroan eta hirugarrena Durangoko Plateruena kafe antzokian zuzenean emandako kontzertuan.

Kontzertuak eman ditu Euskal Herri osoan, Arrasate, Gasteiz, Bergara, Elgeta, Biana, Durango, Gatzaga, Donostia, Amurrio.... baita estatuan ere, Errioxan, Bartzelonan, eta Munichen ere bai.

*Este grupo se puso en marcha en el año 2000 de la mano de José Ramón Elkoro y tras un par de años el director es el bergarés Zigor Martinez.*

*Todos los miembros son alumnas/os y profesoras/es de Arrasate Musikal. Está compuesto por 23 músicos de la localidad de Arrasate y localidades de la comarca. Esta formación asocia cuatro trombones, cuatro trompetas, cinco saxos, un piano, una gitarra, una batería, un bajo y una voz. El repertorio es muy amplio, trabaja diversos estilos, blues, jazz, latin, bossa, funk, rock.*

*El grupo ha grabado tres discos: el primero en el Espalón de Elgeta en el año 2005, el segundo en noviembre de 2006 y el tercero en el café teatro Plateruena de Durango en un concierto emitido en directo.*

*Ha actuado en numerosas localidades, tanto en el País Vasco como en el estado español, en la Rioja, en Barcelona y también en Munich.*

# Tipi-tapa Korrika!

Euskal Herria

ikuskizuna
Pirritx eta Marimototserekin

uztaila
**02**
julio

| ikuskizuna | 19:00 | Monterron parkean |
|---|---|---|




www.katxiporreta.eus

Basoari urtero iristen zaio udaberria; kukuak esnatu, elurrak urtu eta landareak loratzen direnean. Euskarari ostera, urte birik behin; Korrikarekin batera. Korrikako kilometro bakoitzean lekukoa pasatzen dugu euskaldunok eskurik esku, maitasunez. Lekukoa airean dabil, lurrik ukitu gabe, barruan mezu sekretu bat gordeta, sudur gorriok zuen herriko jaialdian zabalduko duguna. Eman, hartu, jaso, pasa... aurrera... Badaramagu euskara etorkizunera!

*Llega la primavera en el bosque, como todos los años, cuando despierta el cuco, se derrite la nieve y florecen las plantas. Pero al euskera le llega cada dos años, con la Korrika. Los vascos pasamos el testigo en cada kilómetro de la Korrika, de mano en mano, con cariño. El testigo está en el aire, sin llegar a tocar tierra, guardando dentro un mensaje secreto que los de nariz roja abriremos en el festival local. Dar, coger, recibir, pasar... hacia delante... Llevamos el euskera hacia el futuro!*

uztaila

07

julio

# Shalom Shalom!!

Arrasate

Kontzertua

20:00

Jose Letona plazan



Shalom shalom!! taldeak musika beltzera eramango gaitu, betiere funk, soul eta blues doinuekin.

Taldekideak dira: Bea Asurmendi (ahotsa), Jon Garcia (gitarra), Aitor Moreno (baxua), Ander Unzaga (pianoa) eta Asier Elias (bateria).

Musikari hauen aniztasunak, esperientziak zein ikasketek eraiki dute rock, pop eta jazz eremuetan murgildutako proiektu aberats hau, eta bultzatuko gaituzte erritmo bizian dantzatzera.

*Shalom shalom!! nos hará recordar a la música negra, con pinceladas de funk soul y blues.*

*Los componentes del grupo son Bea Asurmendi (voz), Jon Garcia (guitarra), Aitor Moreno (bajo), Ander Unzaga (piano) y Asier Elias (bateria).*

*La variedad estilística, experiencia y estudios de los músicos, nos adentrarán en un proyecto muy interesante y con ritmos tan potentes que no podremos dejar de bailar al beat de su música.*

# Zamarra eta Aterkia

Euskal Herria

uztaila
09
julio

kontzertua | 20:00 | Jose Letona plazan



zamarraetaaterkia.bandcamp.com

Zamarra eta Aterkia da Xabier Zamargilea nafararen proiektua. Ibilbide laburreko hainbat taldetan parte hartu ondoren (Zata, Diot), jazzaren armoniak pop musikaren soinuarekin batzen dituen proiektu honetan eman dio Zamargileak irteera bere sormenari. Lehen urratsak eman zituen Jorge Abadias jazz gitarrista eta irakaslearen eskutik, hark eman baitzion aupada kantuak sortzen jarraitzeko, baina hainbat aldaketa izan eta gero, Zamargilearen proiektua egonkortu da Manex Albira (gitarra elektrikoa) eta Beñat Artze (perkusioa) musikariekin. Haiekin grabatu du Beharbada bai, beharbada ez lehen diskoa, baina grabazioaren ondoren taldea laukote bilakatu da, Miren Aranguren (baxua) partaide berriarekin.

*Zamarra eta Aterkia (chamarra y paraguas) es el proyecto del navarro Xabier Zamargilea, músico que tras haber pasado por diferentes bandas de corto recorrido (Zata, Diot), ha dado rienda suelta a su vena creadora en este proyecto que funde las armonías del jazz con el sonido del pop. Zamarra eta Aterkia dio sus primeros pasos con la ayuda del guitarrista de jazz Jorge Abadías, profesor de guitarra de Zamargilea y que fue quien le animó a dar salida a sus canciones. Tras varios cambios fue en 2016 cuando el proyecto se consolidó con la entrada en el grupo de Manex Albira (guitarra eléctrica) y Beñat Artze (batería), músicos con los que ha grabado su primer disco, Beharbada bai, beharbada ez (Quizás sí, quizás no). Tras la grabación Zamarra eta Aterkia ha pasado a ser un cuarteto, con la incorporación de Miren Aranguren al bajo.*

uztaila

**14**

julio

# Topa

## Kukai + Brodas Bros

Euskal Herria - Katalunia

**dantza** | **20:00** | **Zaldibar frontoian**



www.kukai.info

Lau gazte plaza batean daude. Gure hirietako edozein plaza izan liteke. Musika entzundakoan gazteak dantzari ekin diote. Ohikoa da haientzat. Haien adierazpidea da. Dantzari esker dira diren bezalakoak.

Dantzari batzuk dira euskal dantza tradizionalean trebatutakoak, eta beste batzuk Hip hop-eko dantzariak. Kaleak batzen ditu, haien bizi esparruak, alegia. Topa ikuskizunak lau interpretatzaileren batura proposatzen du. Hala bada, nork bere jatorri artistikoei uko egin gabe, talde bizi eta kementsu batean elkartuko dira, elkarrenganako ezagutzaren bidez interpretatzaileak aberastu ahal izan daitezen. Kaleko adierazpen garaikideak dira, hirietako plazetan gaur egun elkarrekin aritzen direnak.

*Cuatro jóvenes se encuentran en una plaza. Puede ser una plaza cualquiera en nuestras ciudades. Suena una música y los jóvenes arrancan a bailar. Es algo cotidiano para ell@s. Es su forma de expresión. Bailar les hace ell@s.*

*Algun@s son bailarines formados en danza tradicional vasca. Otros bailarines de hip hop. La calle, su espacio vital, los une. 'Topa' propone la unión de cuatro intérpretes que, preservando sus orígenes artísticos, se unen en una formación vital y enérgica enriqueciendo a sus intérpretes a través del conocimiento de sus compañer@s. Expresiones callejeras contemporáneas, que hoy comparten vida en las plazas de las ciudades. Juntos compondrán 'Topa', una pieza de calle en la que el espacio urbano se transformará en espacio escénico con la colaboración con el público.*

# Fade Away *Cia. de Danza Ziomara Hormaetxe*

Euskal Herria

uztaila **14** julio

dantza | 20:00 | Zaldibar frontoian



www.facebook.com/ziomara.hormaetxe

"BIOPIRACY" piezaren bigarren partea dela esan genezake, kaleko formatuan, non gizarte utopiko futurista batean, gizakien emozioak deuseztatuak izan dira.
Zer gertatzen da hustua izan den gorpu batekin? Sentimentu eta arima gabeko gorpu batekin? Etorkizuneko gizarte deshumanizatu bati buruzko hauznarketa sakona da. Gorpua nolabait desartikulatua gelditzen da, hermetiko, robotizatua, eta aldi berean textura ezberdiñetatik pasatzen da.

Arima gabeko gizakia, hutsean erorketa bat da.

Zuzendaritza, ideia: Cía Danza Ziomara Hormaetxe Interpreteak: Ziomara Hormaetxe, Thiago Luiz Almeida, Henrique de Souza
Musika: Aitor Etxebarria aka El_Txef_A.

*Es una segunda parte de la pieza "Biopiracy" formato calle, donde habla de una sociedad utópica futurista en la que las emociones humanas han sido erradicadas.*

*¿Qué pasa con un cuerpo vaciado, deshumanizada donde se han extirpado los sentimientos y el alma? Un cuerpo desarticulado, hermético, robotizado, pero que a la vez pasa por diferentes texturas.*
*Un cuerpo sin alma, es una caída al vacío.*

*Idea, Dirección: Cía Danza Ziomara Hormaetxe*
*Intérpretes: Ziomara Hormaetxe, Thiago Luiz Almeida, Henrique de Souza*
*Música: Aitor Etxebarria aka El_Txef_A*

uztaila

16

julio

# Femmes Hortzmuga

Euskal Herria

**antzerkia** | **20:00** | **Seber Altube plazan hasita**




**hortzmuga.com**

Soberan duzun gauza bakarra denbora bada; zure inguruak biraka, bizitzak markatu baditu zure orduak; izorratuta eta zahar sentitzen bazara (lehenengoa bigarrena baino gehiago, eta alderantziz)... unea heldu da esnatzeko, erlojuak sinkronizatu eta jarduteko. FEMMES unea heldu da orduan.

Lau atso suminduk, lau amona iraultzaile eta aldarrikatzailek, ohartuta gizartearen desilusio, atsekabe eta nahigabearekin, erabakiko dute zigor bidea euren esku hartu eta iraultza egitea, oinarri hartuta hedabideetan zein kalean ikusi eta entzuten duten guztia. Mugimendu berri bat sortu dute orduan, oldarkortasunezko metodo zentzugabeen eta protesta erabat desegokien bitartez mundua iratzarriko duen mugimendua.

*Cuando el tiempo es lo único que no te sobra, cuando la vida es la que ha girado a tu alrededor marcando tus horas, cuando te sientes jodida y vieja, más lo primero que lo segundo y también viceversa, es el momento de despertar, sincronizar los relojes y actuar. Es el momento de FEMMES.*

*Cuatro ancianas indignadas, cuatro abuelas revolucionarias y reivindicativas, conscientes de la situación de desencanto, insatisfacción y descontento social y empapadas de todo lo que ven y escuchan en los medios y en la calle, decidirán tomarse la justicia por su mano y hacer una nueva revolución, un nuevo movimiento que despierte al mundo con métodos agresivamente absurdos y protestas radicalmente inconvenientes.*

# Tximeleta *Agurtzane Telleria*

Arrasate

uztaila
**21**
*julio*

| Dantza aereoa | 20:00 | Zaldibar frontoian |
| --- | --- | --- |



**tximeleta2017.wordpress.com**

Pinpilinpauxa baten hegoen astinduak ahal du munduaren beste aldean ekaitz bat sortu?

TXIMELETA-k, naturan murgilduko zaitu, krisalida baten ertz sentikorrean eraldaketa prozesuan bidaiatuz, lasaitasuna eta erlaxazioan sartzen delarik..

*¿Puede el aleteo de una mariposa producir una tormenta al otro lado del mundo?*

*En TXIMELETA, la escena es la misma naturaleza donde podrás sumergirte en la calma y relajación de un viaje al proceso de transformación de una CRISALIDA.*

uztaila
21
julio

# Entre cuatro tiempo

LaGlo Zirko-Dantza

Euskal Herria

dantza bertikala

20:00

Zaldibar frontoian



laglocirco.com

Lau pieza, naturaren lau elementuekin. Lau gorputz zintzilikaturik lau taupada denboraren erritmoan, igarota oinarrizko elementuen egoera bakoitzetik, izaki bizidun moduan egiten gaituztenak eta gure baitan daudenak.

Berpiztea lurraren taupadatik bertatik etengabe aldatuz, zeinak eroango gaituen uraren jariakortasunera, igarota airearen zoramenetik, haren brisa ferekekin gu bihurtzeko suaren energia, zeina jabetzen den gure zoraldiaz, gure alde basatiena ateratzeko.

Horrekin guztiarekin osatzen dugu pieza bat lau musika denborakoa zuzenean, eta sartzen dugu guztia musika konposizio honetan, eta integratzen dugu aireko dantzan eta nabarmentzen ditugu planetaren eskualde honetan bizi ditugun lau urtaroak.

*Cuatro piezas con los cuatro elementos de la naturaleza. Cuatro cuerpos suspendidos a ritmo de cuatro tiempos de latidos, pasando por cada uno de los estados de los elementos básicos que nos componen como seres vivos y que están dentro de cada uno de nosotros.*

*Un renacer desde el latido de la tierra en constante trasformación y que nos lleva a la fluidez del agua, pasando por la locura del aire con sus caricias de brisa para trasportarnos hacia la energía del fuego que se apodera de nuestra locura, sacando nuestra parte más salvaje.*

*Con esto componemos una pieza de cuatro tiempos musicales en directo, pudiendo encajar todo en ésta composición musical, integrándola en la danza aérea y haciendo hincapié a las cuatro estaciones tan marcadas que vivimos en este región del planeta.*

# FreshCool *Tio Teronen Semeak*

Euskal Herria

uztaila **23** julio

**dantza** | **20:00** | **Herriko plazan**



www.facebook.com/Tio-Teronen-semeak-933925379961462

Jende askok dantzatu du Raphaelen kantaren bat bere bizitzako uneren batean, baina zenbat jende saiatu da haren kantak euskal dantza herrikoiekin nahasten? Tira, ba Tio Teronen Semeak bai, eta harrigarriena da ongi gelditzen dela.

“FreshCool” ikuskizunak aurreskuaren soiltasuna eta ganberrokeria batzen ditu umorez betetako saioan. Euskal dantza bitxiak izango dira, baina funtsean euskal dantzak dira, hala ere.

*Hay mucha gente que en algún momento de su vida ha bailado alguna canción de Raphael, pero ¿cuánta gente ha intentado bailarla como si fuera un baile popular vasco? Bueno, pues los bailarines de la compañía Tio Teronen Semeak sí, y lo curioso es que consiguen que encaje.*

*FreshCool aúna la celeridad del aurresku y el gamberrismo en un peculiar espectáculo lleno de humor. Peculiares sí, pero Euskal dantzak en cualquier caso.*

uztaila
28
julio

# Rangsagar Performing Arts
## India

folklore jaialdia | 22:30 | Monterron parkean



www.elai-alai.org/festival/eu

India da herrialde bat aberatsa dena kulturan eta tradizioan. RANGSAGAR PERFORMING ARTS da Indiaren kultura koloretsuaren ispilua. RANGSAGAR taldea sortu zuen orain dela urte batzuk profesional motibatu batzuen talde batek, zeintzuk lan egiten duten aurrera egiteko Indiako kulturan, baina erregistratu ziren duela gutxi, 2012an.

GRUPO RANGSAGARek interpretatu du 28 dantzatik gora, dantza folk indiarrak eta Indiako hainbat estatutako tribu dantzak. Azken 10 urtean, taldeak parte hartu du nazioarteko hainbat jaialditan, folklore dantza eta musikakoak eta programa nazionalekoak.

*La India es un país de rica cultura y tradición. RANGSAGAR PERFORMING ARTS es el espejo de la colorida cultura de la India. El grupo RANGSAGAR se creó hace años por un grupo de profesionales altamente motivados que trabajan para avanzar en la cultura de la India, pero se registraron recientemente, en el año 2012.*

*GRUPO RANGSAGAR ha interpretado más de 28 danzas folk indias y danzas tribales de diferentes estados de la India. En los últimos 10 años, el grupo ha participado en diversos festivales internacionales de danza folclórica y música y programas nacionales.*










# UDA zabal

2017















# UDA zabal

2017

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN